

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2020KO MAIATZAREN 15EKOA, HABEREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, 2020/2 JARDUNBIDEA EMATEKO DENA, EUSKALTEGIETAKO ETA AUTOIKASKUNTZARAKO ZENTRO HOMOLOGATUETAKO IKASLEENTZAKO 2020KO LEHEN DEIALDIA ANTOLATZEKO EMATEN DENA.

HABEren zuzendari nagusiaren 2020ko maiatzaren 13ko Ebazpenaren bitartez, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumak zedarrizten dituen mailak egiaztatze, Zuzendaritza Nagusi honen 2019ko azaroaren 13ko eta azaroaren 18ko Ebazpenen bidez, nola 2020ko otsailaren 27ko Ebazpenaren bitartez, 2020. urterako abian jarri, eta 2020ko martxoaren 16ko ebazpenez atzeratutako egiaztatze-prozedurak berrabiatu dira, eta matrikualdia zabaltzeko epeak zedarritu.

Ebazpen honen seigarren artikulua dio:

“Euskaltegietakoko ikasleei 2019ko azaroaren 13ko Ebazpeneko I eranskinaren 7. oinarrian eta II eranskinaren 4.b. eta 9.3 oinarrietan aurreikusitako entzumen-, irakurmen-, eta mintzamen-probak, trebetasun horiek euskaltegietan ebaluatzeko 2020ko martxoaren 13rako egin ziren jarduerengatik konbalidatzea, ebaluazio-jarduera horiek, HABEren zuzendari nagusiaren, 2019ko irailaren 27ko 2019/2 jardunbidea eman eta, HABEren zuzendari nagusiaren 2019ko irailaren 13ko Ebazpenean xedatutakoaren gaineko akats-zuzenketa egiten duenak xedatutakoaren baitan, lekukoa izan, eta ikasleak gainditu baditu. Bi baldintza hauek betekizun direnean, Ebazpen hau argitaratu egunetik hamar eguneko epea izango dute euskaltegiek ikasleontzaren trebetasun hartzaile horiek ebaluatu, eta HABEren Q87 aplikaziora igotzeko”.

Ondorioz, Euskaltegietakoko ikasleen B2, C1 eta C2 mailetakoko egiaztatze-gintzaren 2020ko deialdia, salbuespeneko egoera jakin honetan, berrabiatzen den egunean, deialdia aurrera eramango den baldintza berezian baita, Ebazpen honek indarrean jarri dituen joko-arau berriok kontuan harturik, beharrezkoa da euskaltegietakoko zuzendariei, batetik, eta euskara-ikasleoi bestetik artikulua honen aplikazioari buruzko irizpide eta jarraibide egoki, argi eta zehatzak ematea.

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

2020/2 jardunbidea onartzea, euskaltegietakoko eta autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleentzako 2020ko lehen deialdia antolatzeke ematen dena, ondoren zehazten den moduan.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

2020/2 JARDUNBIDEA ONARTZEA, EUSKALTEGIETAKO ETA AUTOIKASKUNTZARAKO ZENTRO HOMOLOGATUETAKO IKASLEENTZAKO 2020KO LEHEN DEIALDIA ANTOLATZEKO EMATEN DENA

AURREKARIAK

Gaur argitaratu da EHAAn HABEren zuzendari nagusiaren 2020ko maiatzaren 13ko Ebazpena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumak zedarritzen dituen mailak egiaztatzeko, Zuzendaritza Nagusi honen 2019ko azaroaren 13ko eta azaroaren 18ko Ebazpenen bidez, nola 2020ko otsailaren 27ko Ebazpenaren bitartez, 2020. urterako abian jarri, eta 2020ko martxoaren 16ko ebazpenez atzeratutako egiaztatze-prozedurak berrabiatzeko, eta matrikualdia zabaltzeko epeak zedarrirituz, ematen dena.

Ebazpen honen seigarren artikulua dio:

“Euskaltegietako ikasleei 2019ko azaroaren 13ko Ebazpeneko I eranskinaren 7. oinarrian eta II eranskinaren 4.b. eta 9.3 oinarrietan aurreikusitako entzumen-, irakurmen-, eta mintzamen-probak, trebetasun horiek euskaltegietan ebaluatzeko 2020ko martxoaren 13rako egin ziren jarduerengatik konbalidatzea, ebaluazio-jarduera horiek, HABEren zuzendari nagusiaren, 2019ko irailaren 27ko 2019/2 jardunbidea eman eta, HABEren zuzendari nagusiaren 2019ko irailaren 13ko Ebazpenean xedatutakoaren gaineko akats-zuzenketa egiten duenak xedatutakoaren baitan, lekukoa izan, eta ikasleak gainditu baditu. Bi baldintza hauek betekizun direnean, Ebazpen hau argitaratu egunetik hamar eguneko epea izango dute euskaltegiek ikasleontzaren trebetasun hartzaile horiek ebaluatu, eta HABEren Q87 aplikaziora igotzeko”.

Ondorioz,

a)Konbalidatu egiten dira B2, C1 eta C2 mailetako entzumen-, irakurmen-, eta mintzamen-probak, trebetasun horiek euskaltegietan ebaluatzeko 2020ko martxoaren 13a baino lehenago egindako ebaluazio-jarduerengatik.

b)Betiere, ebaluazio-jarduera horren lekukoa araututako artxiboan gorderik bada, eta ikasleak gainditu badu.

Hala ere, bigarren baldintza betetzeko, artxibo-lana falta bada, lan hori gauzatzeko prozedura zedarriritu behar da.

IRIZPIDEAK

1.- Berrabiatutako deialdi honek gauzatuko duen egiaztatze-gintzak bermatu egin behar du, HABEren aurrean era frogagarrian bermatu ere, maila bakoitza gaindituko duen euskara-ikaslea maila hori gainditzeko ezarritako atalasearen gutxienekoetara iristen dela.

2.- Osasun-egoeraren larrialdiak behartuta, eman diren joko-arau berriek, eta horien aplikazioak, lege-oinarri sendoa behar dute, euskaltegiko arduradun zein ikasleen aldetiko erreklamazioak eta gorajotzeak ekidin eta saihestiaz gainera, jardunbide osoa egoki kudeatu ahal izateko.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

3.- Arreta bereziz jokatuko da ikasleek 2020ko martxoaren 13ko dataren aurretik zuten egoeraren baldintza eta ezaugarriei eusteko, esparru horretan inori kalterik sortu gabe, eta deialdia berrabiatzean, doi-doi jokaldiaren gune horretan kokatuz.

4.- Jarraibideok HABEren zuzendariaren Ebazpenaren seigarren artikulua xedatzen dela bermatu behar dute, eta betiere saihesti egingo da irizpide berrien aplikazioak burokrazia eta alferriko lanak burutzea berarekin ekartzea.

5.- Jarraibideok argitara eman behar dira 2020ko maiatzaren 19a baino lehenago, garaiz eta zuzen bete daitezten.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

1.- AGINDUA, 2016ko azaroaren 23koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak ezartzen dituenaren hiru eta lau artikuluetan xedatutakoa eta lehenengo xedapen gehigarria:

“Agindu honen 3.2 artikuluan aurreikusten diren balio sumatibo edo egiaztatzaileko ebaluazio-jarduerak modu progresiboan ezarriko ditu HABEk, Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Curriculumean zedarritutako gaitasun-maila guztietan.

Progresio hori gehienez ere Aginduaren indarraldia hasi eta lau urteko epean burutuko da HEOCaren maila guztietan.

HABEren zuzendari nagusia ahalmen duta geratzen da ikasturte bakoitza hasi baino lehen erabakitzeke ebaluazio jarraituan oinarritutako ebaluazio-jarduerak balio egiaztatzailearekin zein mailatan aplikatuko diren.”

2.- EBAZPENA, 2019ko azaroaren 13koa, HABEren zuzendari nagusiarena, HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegiak eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleek 2019-2020 ikasturtean ebaluazio jarraituaren harian HEOCaren zein maila egiaztatu ahal izango dituzten ezartzen duena eta 2020ko azterketa-deialdiak egiten dituena.

Lehenengoa.– HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegiak eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleek 2019-2020 ikasturtean Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren A1, A2 eta B1 gaitasun-mailak egiaztatu ahal izan ditzaten, ebaluazio jarraituaren hariko ebaluazio-jarduerari balio egiaztatzailea aitortzea, ebazpen honen I. eta III. eranskinetan zehaztutako ezaugarrien eta baldintzen arabera.

3.- EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 13koa, HABEko zuzendariarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumak zedarritzen dituen mailak egiaztatzeke. Zuzendaritza Nagusi honen 2019ko azaroaren 13ko eta azaroaren 18ko Ebazpenen bidez, nola 2020ko otsailaren 27ko Ebazpenaren bitartez, 2020. urterako abian jarri, eta 2020ko martxoaren 16ko ebazpenez atzeratutako egiaztatze-prozedurak berrabiatzeko, eta matrikulaldia zabaltzeko epeak zedarrituz, ematen dena.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

4.- Urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duenean, administrazio-ekintzak konbalidatzeko aurrekusitako aukerari jarraituz, konbalidatu egiten dira B2, C1 eta C2 mailako entzumen-, irakurmen-, eta mintzamen-probak, trebetasun horiek euskaltegietan ebaluatzeko 2020ko martxoaren 13a baino lehenago egindako ebaluazio-jarduerengatik.

JARRAIBIDEA

1.- Euskaltegi bakoitzeko ikasle matrikulagarrien zerrendak euskaltegi bakoitzari igorriko zaizkio, euskaltegiak dagozkion zuzenketa-proposamenak egiteko. Zuzenketa euskaltegiak berak gauzatu behar ditu Q87 aplikazioan hurrengo hiru eguneko epean eta, ondoren, programabereziak@habe.eus helbidera igorriko ditu zuzenketa-proposamenak, ikaslearen nortasun-agiriaren zenbakia adieraziz, egin aldaketa zein den eta zergatik egin behar izan den zehaztuz.

2.- Irizpide orokorra: Euskaltegian edota autoikaskuntzarako zentro homologatuetan 2020ko martxoaren 13aren aurretik B2, C1 eta C2 mailatan egindako entzumen-, irakurmen-, eta mintzamen-proben ebaluazio-jardueren kalifikazioak sartu beharko dituzte Q87 aplikazioan garatuko den “Agirietarako emaitzak sartu” izeneko moduluan, egiaztatze-deialdian matrikulatzen diren ikasleei dagokienez, behin betiko zerrendak bistaratu eta hurrengo hiru lan-egunetako epean. Azterketariak idazmeneko proba-eguna baino lehenago izango ditu bistan euskaltegiak emandako kalifikazioak, ikaslearen gunean bere erabiltzaile eta pasahitza erabiliz. Halaber ikusgai izango ditu proba eguneko elkartze-puntua eta elkartze-ordua eta proba egiteko tokia eta ordua.

Ebaluazio-jardueren lekukoei dagokienez, zuzendaritza nagusi honek horretarako eman zituen jarraibideak aplikatuko dira. Nolanahi ere, euskaltegiak ez baditu igota lekuko horiek Q87ra, zinezko aitortpena bidaliko du HABEra lekuko horiek eta jarritako emaitzak euskaltegiko artxiboan edo euskaltegiko sistema informatikoan gordeta dauzkala adieraziz, HABEren eskura dagokion jarraibidea egin ahal izateko.

3.- Idazmen-proban 13 edo 14 ateratzen duten ikasleei eta euskaltegiko mintzamen-proban hurrenez hurren gutxienez 16 edo 17 puntu lortzen dituztenei, deialdiaren II. Eranskineko 9.4 puntuari jarraituz, idatzizko frogaren emaitza konpentsatuko zaie.

Donostian, 2020ko maiatzaren 18an

Jokin Azkue Arrastoa
HABEren zuzendaria